

Bero-beroan

Euskara txit amablean

“EUSKARA ASKATASUNEZ” aldarrikatu du duela gutxi Patxi López sozialistak, euskara ez da nonbait aske. Bilboko Udalarentzat ez daki-gu euskara aske den ala ez, baina amablea behinik behin orain arte ez da izan. Anjel Lertxundik *Berrian* ederki azaldu du Udalaren kanpaina *Euskara txit amablean* izeneko artikuluan: “Tesi luzeak idatz daitezke Bilboko udalak abian jarri duen ‘El euskara amable. Orain bai. Horrela bai’, kanpainaren gainean. Euskara amablea, beraz. Eta orain, bai. Atzo arte, ez, nonbait. Horrela, bai, bai baitaude –ulertzen da– amableak ez diren moduak. (...)”

Nik uste nuen bi hizkuntzen bizikidetzaz zela izan behar zuena adeitsu, orekatua, ahulenenarenganako begirunezkoa. Bilboko kanpainak,

ordea, euskarari egozten dio amable izateko betebeharra. ‘El castellano amable. Ya iba siendo hora’. Imajinatu eskandalua.

Euskarari buruz transmititzen dugun irudiak aspaldi kezkatzen duten horietako bat naiz, baina konplexuz betetako portaerek ere ez gaituzte amableago egingo. Bai, ordea, gajo errukarriago”.

9.500 euro denentzat

NAFARROAKO GOBERNUAK euskaraz aritzen diren hedabideen artean, 2009an, banatuko duen diru-laguntza da kopuru hori. Ezusteko galanta. Abenduaren 10ean argia.com-en Unai Brea kazetariak hala idatzi zuen albistea jakin aurretik 2008ko aurrekontuez: “Laurden bat jan diote hasierako partidari, baina azkenik diru-

laguntza jasoko dute euskaraz diharduten nafar hedabideek. Izua ez zaie oraindik guztiz kendu ordea. Hainbat hilabetez izan duten beldurak arrastoa utzi die, trauma-ondoko estresa bailitzan. Aurten bai, baina datozen urteetan zer?”. 310.000 euroko diru-laguntzatik 240.000 eurora jaisteaz ari zen kazetaria. Minutu gutxira Xorroxin Irratikoen deia: aurten 240.000, bada 9.567 datorren urtean. 9.567 euro hedabide guztientzat, 2008koa baino %96 gutxiago. Larri dira hedabideak, batzuk biziraupena arriskuan dute, 2008ko jaitzierak asko izutu ditu. Bada 2009koak...

BAHEA

Rikardo Etxeparek *Berrian* esanak:

“Hizkuntza aldetik aztertu nahi izan dugu normalean bazterrean uzten den kontu bat: euskararen barneko hizkuntza bariazioa. Azken 30 urteotan, iparraldean bereziki, euskara tradizionala deitzen dugun hori, harremanetan sartu dela bai frantsesarekin bai euskara estandararekin, eskolaren eta komunikabideen bidez. Horrek hainbat aldaketa ekarri ditu, eta euskal hizkuntza paisaia zertan aldatu den aztertu nahi dugu; hau da, horrek zertan ukitu duen egiten den euskara, gizartearen hainbat ataletan. Inor gutxi arduratzen da Euskal Herrian hizkuntza ukitzen ekarritako hizkera berriez, eta hori ez da horrela beste tokietan”.

Kazetariak galdetu dio ea zergatik hizkuntzalariek ez duten arlo hori jorratzen:

“Alde batetik ikasketek euren inertzia dutelako, baina nire susmoa da beldur pixka bat ere ematen duela ikusteak hizkuntza nola aldatu den eta nola bizi den gazteago den jendearen ahotan, elebitasun egoera etengabeak horrek uzten duen aztarna euskaran”.

TALAIAN

Dibidenduak... krisiarenak!

2008an ere marka hautsiko dute Burtsan kotizatzen duten Espainiako Estatuko enpresek, kontuan hartzen baditugu banatu dituzten dibidenduak. Horien artean daude banku eta enpresa handiak, tartean batzuk Euskal Herrikoak. Hori guztia daukagu krisi latza nozitzen ari garenean. Krisiaren dibidenduak dira! Bolsas y Mercados Españolesek emandako datuen arabera, sozietate kotizatuak akziodunen artean 23.211,37 milioi euro banatu dituzte lehen hamar hilabeteetan. Aurreko urtekoarekin alderatuz %17ko igoera da. Urria arteko kopurua 2007koaren ia bera da, alegia, 23.338 milioi euro dibidendutan, 2000tik kopururik handiena. 2008ak marka berria ezartzeko bidea darama beraz. Aurten akziodunen artean dibidendu gehien banatu dituen Espainiako Estatuko enpresa Beasaingo CAF izan da. 8,50 euro akzioko!

Bien bitartean erregulazio espedienteak eta langabezia gora doaz, eta krisia, eraikuntzan eta zerbitzuetan gairi, olio parrasta gisan zabaltzen ari da sektoreetan. Finantzak, bereziki bankuek eta aurrezki kutxek, enpresa txiki eta ertainari eta familiei kredituak nekez ematen segitzen dute, nahiz eta diru publikotik milioika askoko sarrerak etorri zaizkien. Lotsagarria da. Finantzak krisi garaian etekin izugarriak ditu. Bankak dibidendu ikaragarriak banatu ditu eta hilzorian ari da uzten enpresa bat baino gehiago, bideragarriak izan arren, likidezia faltan behega jotzen ari direlako. Lotsagarriagoa da gobernuen jarrera: finantzari likidezia ziurtatu dio diru publikoaren bidez, baina ez du diru hori kontrolatzen eta ez dio eskatzen diru hori hazkunde ekonomikoa bultzatzeko eta langabezia murrizteko erabiltzeko.

Juan Mari Arregi

Gobernagarritasuna, etika eta herritarrak

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

INAZIO URIAREN hilketak udal eraketaren ohiko biharamuna utzi du ANV-EAE gobernuan den lekuetan. Batetik, Madrildik aztertzen dituzten mugimenduak daude, gobernuan dagoen alderdiaren beharretara indarrean jarriko direnak ala ez. Bestetik, udalaren bertako indar harremanen neurketa berria azaleratzen da. Lehenik eta behin, komeni da azpimarratzea indar harreman berri batek gehiengo zaharra alboratzen badu, hori zilegi dela demokrazian. Azpeitian orain arte izan den udal eraketa da horren lekuko, EAJren gehiengoari beste gehiengo bat nagusitu zitzaion eta kito. Eta kasu bakoitzak mereziko du dagokion balorazio politikoa, baina ez dago gehiengo berriak osatzeko zilegitasuna zalantzan jartzetik.

Zeren gainean eraiki, ordea, gehiengo berria? Azpeitiko ANVk, EAK eta Aralarrek ez zuten halako hilketarik aurreikusiko seguruenik -ohikoan beti bestearen etxean gertatzen da-, baina biolentzia eta gatazka medio arazorik izan zezaketela bai, horregatik hitzartu zuten giza eskubideei buruzko puntu orokor bat, jakinik horrek une hartako akordioa gauzatzeko baliagarria zela, baina zerbait gertatuz gero, horrek ezer gutxirako balioko zuela eta unean uneko erabakiak hartu beharko zituztela, bakoitzaren jokaeraren arabera. Hala izan da, eta EA eta Aralarrek udal gobernua utzi dute.

ETAk euskal politikan ez duela eragin behar esaten da, baina behin eta berriro erakusten da baldintzatzen duela, eta nola gainera. Ez badu eragin behar, ez dadila ETaren jarduna kontuan hartu eta listo. Baina zentzu bako kimera da hori. Eta horregatik ez du zentzurik esatea ETA izango ez balitz moduan jokatu



behar dela, sarri politikari askoren artean entzuten den bezala.

Ez da ona ez eraikitzailea gobernagarritasuna ETaren aurkako jarreraren oinarritzea. Batetik, hori ANV -edo dena delako sigla- zeharka ETArekin parekatzea delako; Ajuria Eneko Itunean saiatu zen hori eta emaitza porrota izan zen. Baina kontua da, gobernagarritasuna are eta argudio ahulagoen gainean egituratzen dela oraindik, ETaren atentatua ez kondenatzearen gainean hain zuzen. Uriaren hilketak Azpeitiko herritarren gehiengo oso zabalaren arbuizatzea eta gaitzespena ekarri du, eta ANVk jasan beharko ditu hilketa ez arbuizatzea edo ez gaitzestearen ondorio politikoak. Baina ANV ez da atentatuaren egilea, ez du ados egon beharrik atentatuarekin eta, gainera, seguru, ANVren hautetsi eta boto emaile asko ez dagoela ados hilketa berri honekin. Hori egitea, EAJ, EA edo Aralarri ilegalizazio politiken ardura egozte bezala da.

Pertsona baten hilketa da giza eskubideen urraketen adierazpide gorena, baina giza eskubideen beste urraketa asko ere badira Euskal Herrian, joan den astean atxilotutako usteko etakideen tortura salaketek

argi adierazten duten moduan. Gobernagarritasuna edo akordio politikoak giza eskubideen etikaren oinarrian aztertu behar badira, modu orokorrean egin behar da, eta ez bakarrik ETaren hilketen kasuetan bakarrik.

Gobernagarritasuna ETaren kondena edo gaitzespenaren ardatzean eraikitzean, herritarrei proiektu politiko desberdinak gauzatzeko dituzten eskubide eta aukerak ezabatzen zaizkie. Hirigintza, politika sozialak, zerga bilketa, kultura eta abarrei buruzko hainbat ikuspegi dituzte alderdi politikoak, eta dena ETaren kondenapean estaltzen bada, errealtate anitza ukatzeaz gain, herritarrek ikusmolde desberdinak garatzeko duten eskubidea nabarmen kaltetzen da. Azpeitian -edo Arrasaten...- botere aldaketa izan daiteke eta zilegi da, baina botere jokoa da, ez etika edo ETaren aurkako eraginkortasun kontua. ANVk ere atera beharko ditu bere kontuak, koalizio gobernuek sarri dakarzkie deserosotasunak kideei, baina deserosotasun maila batzuek gainezka egiten dute eta orduan ura, saihetsi eziniko moduan, mahaian barreiatzen da, bazterretik jauzi eta lurrean galdu arte.